



Basque Writing 22

Joan Mari Torrealдай

HIZKUNTZA ETA KULTURA MEHATXUPEAN



Argazkia: Jon Orbe/Foku

Basque Writing honetan Joan Mari Torrealдай omendu nahi izan dugu, lehenik. 2020ko uztailaren 31n zendu zen eta umezurtz utzi zuen euskal kultura. Bigarrenik, hizkuntza eta kultura minorizatuak dituzten mehatxuak agerian jarri nahi izan ditugu, Torrealдаiren ibilbidetik begiratuta. Eta mehatxuei erantzuna nola eman.

Tokikoa unibertsa da, eta sinetsita gaude hizkuntza minorizatu baten alde egiten den oro, gainerako hizkuntzen aldekoa dela. Hizkuntzak ezberdinak dira, baina hizkuntzen aurkako mehatxuek elkarren antza dute.

Urtzi Urrutikoetxeak dio Torrealдай “inurri erraldoia” dela. Urrutikoetxeak aurtan hartu du **Itzulpena eta Hizkuntza Eskubideen Batzordearen** zuzendaritza, (TaLRC) **PEN International**-en barruan, eta ongi asko ezagutzen du

hizkuntza minorizatu askoren egoera larria.

Urrutikoetxearen hitzekin esateko, *Lehenago behar genuen baina zuen aurkako krimenak bideratu zuen Euskal PEN sortzea, katalanen laguntza. Zenbat lagun ezagutu ditugun munduan hari esker, Egunkaria kasua eroaten, eta beste hainbat gerora, Nafarroako politika euskarofoboak, Frantziarenak —okzitanoekin batera egindako lanean—; baita ekartzen ere, kurduak ondo dakite zer den egunkaria ixtea eta kulturgileak, ikertzaileak, kazetariak espetxeratu, torturatu edo hiltzea, Musa Anterrek gertatu legez —«nire hizkuntzak zure estatuaren oinarriak*

astintzen baditu, ziur aski zure estatua nire lurrian eraihi duzulako da»—, Diyarbakirren paramilitarrek bahitu eta biharamunean hilik agertu zen.

Gu ere bizitzan eta munduan zure antzera ibiltzen saiatzen gara, Joan Mari: xume, leziorik eman ez, eta ahal dela irribarrez.

Aldizkari honetan agertzen diren hiru artikulak, BERRIAko gehigarri berezian argitaratu ziren abuztuaren 1ean, Torrealдай hil eta biharamunean.



Laura Mintegi
Euskal PEN



Liburugintza eta Zentsura

LIBURUGINTZA

Euskal liburugintza aztertzea eta euskarazko testuek jasan zuten eraso politikoa agerian jartzea izan zen Torrealdairen ikerketaren ardatz nagusia. Liburugintzari dagokiola, ezinbestekoak dira **Euskal Idazleak Gaur** (1977) eta **Euskal Kultura Gaur** (1997) lanak. Lehenean, garaiko literaturaren erradiografia zehatza aurkeztu zuen. Bigarrenean, eguneraketa egiteaz gain, literaturatik kulturara hedatu zuen lan-eremua. Horrez gain, urtero-urtero azertu zuen liburugintza eta Jakin-en argitaratu zuen.



JAKIN aldizkaria

Jakin aldizkaria da euskal kulturaren iraupenaren eta erresistentziaren sinboloa da. Frankismo bete-betean sortu zuten aldizkaria, 1956an egin baitzen lehen bilkura Oñatin, frantsiskotarren inguruan. 1963an sartu zen Torrealdai eta 1964 zuzendaritza hartu zuen tarte labur batez, eta berriz ere 1968an. 2014an zuzendari izateari utzi zionerako, 42 urte zituen metatu zuzendari, tarte guztiak batuta.



ZENTSURA

140 urtean jardun zuen euskal kulturaren aurkako zentsura aztertzen eta agerian jartzen. Urte horien guztien lana konfiskatu zion poliziak, Espainiako Gobernuaren aginduz, 2003ko otsailaren 20an atxilotu zutenean. Atxilotetak beste mindu zuen urtetako lana galdu izanak.

Aurretik ere ezagutu zuen zentsura. 1968an zentsuratu zioten JAKIN aldizkarian, eta 1969an Espainiako Gobernuak aldizkaria debekatu zuen. 1977ra arte ezin izan zen eman argitara.



Kulturgintzaren zutabeak

EUSKAL IDAZLEEN ELKARTEA

1982an sortu zen Euskal Idazleen Elkartearen ere jardun zuen Joan Mari Torrealdaik, idazkari nagusia izanik lehenengo urteetan. Euskaraz idazten dute idazleak biltzen ditu Elkarateak, edonon jaio edo bizi direla.

Gaur egun 400 kide inguru ditu eta, euskal idazleen lan-eskubideak defendatzeaz gain, bere xede nagusiak dira euskal literatura zabaltzea Euskal Herrian nahiz nazioartean, idazlearen lanaren proiektzioa bideratzea eta euskalgintzaren eragile aktiboa izatea.



EUSKAL IDAZLEEN ELKARTEA

ELKAR argitaletxea

1972an Ipar Herriko 20 euskaldunek sortu zuten Elkar. 1974an Joseba Jaka, Joxe Azurmendi eta Joan Mari Torrealdaik batu ziren Parisen eta Elkar indartzeko beste 20 euskaldun batu zituzten, Hegoaldekoak. Honela birstutu zen Elkar 1974an, Jakak liburu sail berria ateratzeko zeukan proiektua aurrera eramateko.

1996an aho batez erabaki zuten Elkar argitaletxea sartuko zela Euskalgintza Elkarlanean Fundazioan, eta 1997az geroztik Elkar Fundazioaren Patronatuko kidea izan zen Joan Mari Torrealdaik.



EUSKALTZAINDIA

Hizkuntza bera izan zuen ardura Joan Mari Torrealdaik, euskara batzea eta euskaraz alfabetatzea. 1960 hamarkadan hurbildu zen Euskaltzaindira, eta orduetik aurrera estua izan zen lankidetzaren erakundearekin. 1975ean euskaltzain urgazle izendatu zuten eta 2007an euskaltzain oso. 2017tik aurrera euskaltzain emeritua izan zen.

Liburugintzan murgilduta, Akademia-rako sarreran egin zuen hitzaldiak **Bibliografiatik Bibliotekara. Esperantzari leihoa** titulua zeraman. Izan ere, 2011n hartu zuen Azkue Bibliotekako zuzendaritza.

EUSKALTZAINDIA
REAL ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA
ACADÉMIE DE LA LANGUE BASQUE

PUNTU EUS

Munduan 6.000 hizkuntza baldin badira, 300 hizkuntza baino gutxiago daude interneten, eta euskara 44. postuan dago. Wikipediari begiratu gero, ordea, 250.000 artikulua gora daude euskaraz, eta 31. lekuan kokatzen da. Hizkuntzaren ikusgarritasunerako garrantzitsua da domeinu identifikagarria erabiltzea.

Horretarako sortu zen PuntuEUS (.eus) domeinua, identitatea adierazteko. 2007an sortu zen proiektua eta 2014an hedatu zen sarean sarean. Torrealdaik PuntuEUS Fundazioko lehendakaria izan zen 2015tik 2017ra.





Euskaldunon Egunkaria kasua

Euskarazko lehen egunkariaren historia

Euskaldunon Egunkaria euskarazko egunkari bakarra zen. **1990eko abenduaren 6an** sortu zen, euskaraz informatuko zuen egunkari bat euskal gizarteari emateaz gain, hizkuntzaren estandarizazioan laguntzeko. Milaka euskaldunek diruz lagundu zuten, ordura arte amets hutsa zena egia bihur zedin.

Euskal Herri osoan banatzen zen, eta bertan lekua zuten herrialdeko sindikatu, alderdi, eta ahots ekonomiko eta sozialek. Hala eta guztiz, **2003ko otsailaren 20an**, Audientzia Nazionalako epaileak ixteko agindu zuen, ETArekiko ustezko loturak argudiatuz.



Joan Mari Torrealdai (Kontseilu Editorialeko zuzendaria) , **Martin Ugalde** (Kontseilu Editorialeko lehendakaria) eta **Joxemi Zumalabe** (Kontseilu Editorialeko ordezkaria).

Oinarri legalik gabeko kasua

Espainiako Guardia Zibilak bultzatutako eta auziaz ardura zeukan epaileak babestutako akusazio nagusia zen

1.- **ETAren finantziazioa.** Zazpi urteko ikerketen ondotik (egunkaria itxi aurretik bi eta beste bost gero), ez epaileak ez akusazioaren egile zen Guardia Zibilak ezin izan zuten frogatu ETak Egunkaria finantzatu izana. Areago, 600 orrialdeko agindu judizialean, epaileak "ahaztu" egin zuen finantziazioaren gaa eta beraz aipatu ere ez du egiten egunkariaren itxiera justifikatzeko erabilitako arrazoi nagusietako bat.

2.- **ETak kontrolatzea.** Epaileak egunkariko zuzendariari ETako kide eta kolaboratzaile izatea leporatu zien. Baina zazpi urtez ikertu ostean, ez epaileak ez Guardia Zibilak ezin izan zuten frogatu.

1990eko abenduaren 6an **sortu zen** eta 2003ko otsailaren 20an **itxi zuten** indarrez, zuzendaritzako 10 kide atxilotuta

2003ko otsailaren 22an inoizko **manifestaziorik handiena** egin zen Donostian (Gipuzkoa) itxiera salatzeke

2004ko abuztuaren 2an **Iñaki Uri**a kartzelatik irten zen, urtebete luzea barruan eman ondoren

2006ko abenduaren 4an Espainiako Auzitegi Nazionalako Fiskaltzak ondorioztatu zuen **ez zuela frogarik topatu Egunkaria** ixteko.



Euskal gizartearen sumindura

Euskal gizartearen erreakzioa berehalakoa izan zen, modu ikusgarrian, eta Egunkariaren itxieraren aurkako protesta kanpaina bati ekin zion. Itxieratik bi egunetara, Donostiako kaleek ordure arte inoiz ikusi zuten manifestaziorik handienaren lekuko izan ziren, **Egunkaria aurrera** lelopean.

Euskarazko egunkari bakarraren itxiera euskal gizartearen aurkako eraso zuzen bezala ulertu zuten gehiengo politiko, sozial, sindikal zein kulturalak. Izan ere, **akusatuaren izenaren eta prestigio sozialaren ondorioz**, Euskal Herrian inork ez zituen sinetsi akusazioak.



2007ko maiatzaren 7an Espainiako Auzitegi Nazionalak Egunkaria auzian **ahozko epaiketa** egitea erabaki zuen, fiskalaren iritzia **kontra**

2010ko otsailaren 1ean **amaitu zen epaiketa**. Kasua artxibatzeko eskatu zuen fiskalak, **deliturik ikusten ez zuela** argudiatuta, eta apirilaren 12an

2010ko apirilaren 12an Espainiako **Auzitegi Nazionalak absolbitu zituen** Joan Mari Torrealdei, Iñaki Uria, Txema Auzmendi, Martxelo Otamendi eta Xabier Oleaga.

2012ko urriaren 16an Europako Giza Eskubideen Auzitegiak Espainia kondenatu zuen, Martxelo Otamendi Egunkaria-ko zuzendari **ohiaren tortura salaketak ez zituelako behar bezala ikertu**.

2014ko urriaren 14an Gipuzkoako Auzitegiak **itxi zuen Egunkaria-ko auzi ekonomikoa**. Orduan **bukatu zen** Egunkaria auzia.

Nazioarteko interesa

Giza Eskubideen aldeko nazioarteko erakunde askok egin zuten protesta egunkariaren itxieraren aurka: PEN International, Amnesty International, Reporters Without Borders-International, Article 19, Europako Parlamentuko hiru taldek, Eusko Legebiltzarrak, eta abar. Nazioarteko hedabideek (TIME Magazine, The Guardian, The Independent, Le Monde, The Washington Post, RAI, BBC, eta abar) gaiari heldu zioten euren argitalpenetan eta berriemaileak bidali zituzten fidantzapean libre geratu ziren atxilotuak elkarrizketatzera.

Guardia Zibilak hamar **atxilotue-tako seiri egindako torturak** onartezinak ziren herritarrentzat, eta ondorioz, Europako hedabide askok arreta jarri zioten egunkariaren itxierari.



Basamortuak zeharkatzen

Iñaki Uria

«Prensa Euskaraz!» harrezkeroztik hamarkada eman genuen *Argia*-kook Euskal Prentsan hurrengo helburua genuen *Egunkaria* aldarrikatzen, amesten, diseinatzen eta prestatzen. Luzea izan zen 80ko hamarraldiaren zeharkaldia.

Bukaera aldera, *Argia* eta *Jakin* hurbildu ginen lehendabizi. Elkar ondoren. Elkarren beharra genuen. Jakitun ginen *Argia*-koak.

1990eko abenduaren 6an *Egunkaria* argitaratu zenean, Editorial Kontseiluko arduraduna zen Joan Mari. Eguneroko zereginean erredakzioa zuzentzen genbiltzanok babesa behar genuen, eta babesa eskaini zigun.

Honela, beste basamortu baten zeharkaldia hasi zen. Ekonomia larri, barne krisia piztuta, erakunde publikoen boikota, Joxemiren minbizia... gogorak izan ziren sortu ondoko lehen urteak ere. Uste zuten eroriko ginela. Denbora kontua zela. Basamortuan urik gabe itoko ginela.

Joxemi hil zenean, 93ko urtarrilean, elkarri begira geratu ginen Joan Mari eta biok. Zu ta ni, ni ta zu... Eta Martxelo topatu genuen. *Egunkaria*-k luzaroan izan zezakeen zuzendaririk egokiena.

Jaurilaritzak ezarritako diru laguntza basamortuan jarraitzen genuen. Eta berriz ekin genion «diplomaziari» Joan Mari eta Martinekin. Bidea egin genuen, eta iritsi ginen 94ko

Bilera bakoitza prestatzeko, bazkaria eta bazkalondoa. Edota mendi ibilaldi luzeak. Indarraldiak eta txakalaldiak. Indarra buruan zela ikasi nion. Elkarrekin luze jarduten genuen, eta erraz konektatzen genuen. Bagenekien begiak luzera begiratzen jarri eta urratsak banan-banan egiten. Helburuak zehazten joan, eta erdietsi ahala berriak ezartzen. Azkarra zen, argia, zorrotza.

Martin ohorezko lehendakari, eta Joan Mari lehendakari jarri zen. *Euskaldunon Egunkaria* onean zegoen. Sekula baino irakurle eta iragarle gehiagorekin. Jauzi bat emateko prestatzen ari ginen. Orduan itxi zuten.

Asko sufriarazi ziguten. Minbizia garatu zuen Inmak, eta hil egin zen. Bere buruaz beste egitera eramán zuten Pello, eta bere buruaz beste bat egin zuen. Minbizia Martxelok, eta gainditu egin zuen. Joan Mariri, ordea, hezurren muineraino sartu zioten minbizia. Torturak, kartzela... Beste hamarkada bateko basamortu luzean, Auzitegi Nazionalaren aurrean geure buruaren defentsan jardun behar izan genuen. Epaiketa nagusia eta ekonomikoa. Zalantzen eta beldurren itolarrian.

Absolbitu gintuzten, baina errudun ginen. *Egunkaria* sortu egin genuen. Baimenik eskatu gabe. Bizi eta iraunarazi egin genuen.



Egunkaria-ko kontseilari ordezkaria (1993-2003).
2006tik gaur arte, *Hamaika Telebista* Hedatzeko
Taldearen zuzendari nagusia.



Euskararen Amaiur honetan

Lorea Agirre

Gizarteari lotzen gatzazkion lekuak bizitzaren zentzuaren berri eman lezake. Joan Mari Torrealдай euskararen eta herriaren aldeko borrokatik lotu zaio herri izan nahi duen gutasun honi. Zehatzago esan, euskalgintza herrigintzaren eraikuntzaren erdigunean jartzetik. Eta hori du bere bizitzaren zentzua, bizi duen lekua.

Torrealдай hasiera berri bat da. 50eko hamarkadan, gerraosteko lugorrian, bide berri bat ekarri zuen belaunaldiko kide da. Etena eta segida, aldi berean, etorkizun bizigarri baten bide irekitzaila. Bide berriak, bide guztiak. Larrekoak eta noranahikoak. Bereziki noranahikoak. Herentziarik gabe jaio zen belaunaldi hark, tartean Torrealдай, eskuzabaltasun osoz, baratze ongarritu bat utzi digu herentzian.

Torrealдай kontzientzia bat da. Kontzientziarik ez zegoen garaitik kontzientzia modan ez omen dagoen garai hauetarako irakaspen bat. Kontzientzia bat kate bati eusteko, lotzeko bezainbeste hausturak eragiteko. Berritzeko, berrasmatzeko. Garaia erantzuteko. Kontzientzia bat auzien garrantziaz jabetzeko, egin behar denaren eta egiten ari garenaren garrantziaz ohartzeko.

Torrealдай konpromiso bat da. Erdigune ez-ekidistante batetik, gizarte zibilean, euskalgintza beregainen eta profesionaltasun militantean sustatzen dena.

Torrealдай taldeetasun bat da. Besteekin lankidetzan jarduteko gaitasuna eta egitasmoak – egiturak, beti egiturak – sortu arteko onik eza. Oinarriak jartzen, aldamioak altxatzen hainbat eta

hainbat egitasmotan. Eta bereziki Torrealдай Jakin da, eta

Jakin bera ulertzeko moduak ahalbidetu dio beste mila egitasmotan eragiletzan aritzea.

Torrealдай galdera bat da. Zer da euskarak behar duena, zer da herri honek behar duena. Euskararen askatasuna eta bizia defendatzen eman du bizitza. Mundu propioa sortzen eta elikatzen. Geure baitakoak izan gaitezen, ez menpeko perpaus. Buru askiak eta askeak.

Torrealдай pribilegio bat da Euskal Herriarentzat. Sinbolo bat, jada: euskararen aldeko borrokatik, borroka horrexegatik atxilotua izanagatik, torturatua, epaitua, epaiaren zain zazpi urte egon eta gero zorionez libre atera izanagatik. Sinbolo bat, ez ordainik ordaindu gabe, halere. Euskararen Amaiur honetan, Torrealдай gure lekua da.



JAKIN aldizkariko zuzendaria



Ez adiorik

Laura Mintegi

Entzun nahi ez nuen albistea jaso dut, Joan Mari. Enoratu nahi duguna, ordea, ez da desagertzen enoratze hutsagatik. Irakasgai hori erakutsi zenidan aspaldi.

Mahai-ingurua partekatzen ari ginen *Zentsura At! Censorship Festival*-ean 2010ean. Zentsurak eragiten duen kalte politikoaz, sozialaz eta pertsonalaz ari ginen, eta Norvegiatik etorria zen eta laguna nuen Stein Torger kazetari samiak esan zidan elkarriketa egin nahi zizula. Zuri galdetu eta baietz, baina ingelesez nekez, eta interprete lana egiteko. Nola ez.

2003an izandako Egunkariaren itxieraz galdetu zizun, luze eta zabal, eta poliziak eman zizun tratuaz. Martxelo Otamendiren eta Iñaki Uriaren testigantzak aipatu zituen kazetariak. Eta orduan hasi zinen deskribatzen, bare eta pausatu, zeu ere torturatu zintuztela. Kazetari hari azaldu zeniona ez nuen entzunda aurretik, zer egin zizuten eta nola sentitu zinen. Testigantza berri hura ingeleseratu ahala, eztarrian korapilatu zitzaidan, hitzekin batera, zure begietan ikusi nuen begirada. Hain hauskor, hain babesgabe, hain zaurgarri ikusi zintudan une hartan. Ezin ahaztu. Elkarriketa amaitutakoan aurrez aurre gelditu ginen isilik. Zer esan. Ez dago hitzik. Eta zeuk, irribarre tristeaz esan zenidan liberazioa sentitzen zenuela. Denbora behar izan zenuela zure buruari aitortzeko egia maltzurra, maltzurregia egia izateko.

Bost urte beranduago aitortu zenidan, zenigun, oinaze ezkutu horrek eragin zizula min anker eta bizia, hezurretaraino sartu zitzaizun min bizia.

Maite zaitugu, Joan Mari. Miresmena, errespetua, konplizitatea, elkar-elikatze intelektuala. Ez dut ahaztuko nola etorri zinen 1987an Txagorritxura, premiazko ebakuntzaren ondoren hilabeteko egonaldia eman nuenean ospitalean. "Emakumea eta Literatura" monografikoan parte hartzeko konbentzitu nahi ninduzun. Nola esan ezetz. Jakin-eko maskulinitate omnipresentea eta misoginia zantzuak urtetan kritikatu eta gero, ezin nuen besterik egin. 2014an erreleboa aurkeztu zenuteanean, ordea, *ikusi duzu*, esan zenidan, *emakume bat Jakineko zuzendari. Eta nolako emakumea*, esan nizun nik, *Lorea Agirre, "floriturbo"*, ia-ia nerabea zela jarri genion ezizena. *Orain ezin leporatu misoginiarik, e, Laura?* esan zenidan irribarre, ziria sartu nahian.

Irribarre alai eta bihurri hori da beti gogoan izango dudana.



Egunkaria-ren Aldeko Babes Taldeko kidea